- Por último el concejal Sr. Ernaga con respecto al Mapa Local, se solicitó a la FNMC una asamblea para que hubiera una mayor participación de las entidades locales, aquí se estuvo en contra pero luego cuando se convocó dicha asamblea el Ayuntamiento acudió, por lo que quiere saber si el voto se utilizó como Ayuntamiento o también en representación de los Concejales. Toma la palabra la concejala Sra. Urtasun que informa que a dicha asamblea acudió ella y que ella votó solo por el Ayuntamiento, respecto a los Concejales fueron representantes de los mismos y fueron ellos quienes dieron su voto.

- Toma la palabra la concejala Sra. Martínez, que respecto al proyecto de los senderos se debería señalar mejor el Camino de Santiago, poner 2 o 3 carteles informando por donde va el mismo, no suponiendo gran coste de



dinero. Toma la palabra el concejal Sr. Ernaga que considera que está suficientemente señalado.

En todo caso se aprueba por unanimidad el proyecto redactado por Equilan y presentado por Edurne de Cederna Garalur.

Y no habiendo más asuntos que tratar siendo las 19,15 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2013ko abenduaren 18an, 17:00etan, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Jesús Esteban Juanarena Apesteguia, Miren Orreaga Urtasun Alegre, Álvaro Villanueva Azcarate, Miguel Echamendi Hernandez, Gabriel María Ernaga Esnoz eta María Roncesvalles Martínez Sagardia, bilkuraburu alkatea, Enrique Garrada Erro, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

### **1.-2013ko URRIAREN 16an EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA**

Udalak erabaki du aho batez 2013ko urriaren 16an egindako osoko bilkura arruntaren akta onartzea.

Horrekin lotuta Ernaga jk. eskatu du bilera egitea Iberdrolarekin (Carmelo Oiz j.) eta Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentuarekin (Esteban Faci j.).

### **2.- ALKATEAREN EBAZPENAK 2013KO URRIAREN 5ETIK 2013KO ABENDUAREN 13A ARTE**

Alkateak 2013ko urriaren 5etik abenduaren 13a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Zinegotziek horien berri izan dute.

### **3.- 2014KO ZERGA TASAK. ONESPENA**

Alkateak, Garralda jk., 2014ko zerga tasak onartzea proposatu du. Hona hemen:

1.-Ehuneko 0,28ko karga-tasa jartzea hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko

2.-Ehuneko 0,40ko karga-tasa jartzea landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.

3.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)

4.-1,10 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.

5.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,1 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,6ko tasa.

Ernaga jk. hitza hartu du eta esan du beste Udal batzuekin alderatuta, adibidez Burlata, Erroibarko Udalak zerga-oinarri altuak dituela. Udalak ahalmen ekonomikoa duenez, zerga tasak jaitea proposatu du eta zergadunei gutxiago kobratzea. Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du badakiela Burlatan EOIZ %5 dela eta gure ibarrean berriz %3 eta Erroibarko Udalak badaramala gutxienez hamabi urte zerga tasak aldatu gabe, beraz Erroibarko bizilagunak Udalak alde horretatik hartutako erabakien ondorioz ez dira kaltetuak izan eta, izatekotan ere, egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuz, ez du uste komenigarria denik zergak jaitea, Ernaga jk. proposatu bezala, eta galdetu dio zein den proposatzen duen alternatiba. Alkateak, Garralda jk., zerga bakoitzari buruz egin dizkion galderi erantzunez, Ernaga jk. proposatu du hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioari dagokion karga-tasa 0,28tik 0,24ra jaitea eta gainontzeko zergak bere horretan uztea.

Ondoren bozketa egin da eta emaitzak hauek izan dira:

Ernaga jaunaren proposamena: aldeko bi boto (Ernaga eta Martinez) eta aurkako bost boto (Urtasun, Juanarena, Villanueva, Echamendi eta Garralda)  
Garralda jaunaren proposamena: aldeko bost boto (Urtasun, Juanarena, Villanueva, Echamendi eta Garralda) eta aurkako bi boto (Ernaga eta Martinez)

Beraz, aldeko bost botoz (Urtasun, Juanarena, Villanueva, Echamendi eta Garralda) eta aurkako bi botoz (Ernaga eta Martinez) 2014ko zerga tasak honakoak izatea onetsi da:

- 1.-Ehuneko 0,28ko karga-tasa jartzea hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko
- 2.-Ehuneko 0,40ko karga-tasa jartzea landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
- 3.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)
- 4.-1,10 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.
- 5.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,1 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,6ko tasa.

#### **4.- HIRIGINTZA TXOSTENAK**

**4.1. Jose Angel Castellot Garciak Mezkirizko UE20 Exekuzio Unitatean sustatu duen egiturazko aldaketa eta zehaztapen xehatuaren hasierako onespina.**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta gaiaren aurrekariak azaldu ditu: 2010eko urtarrilaren 22an Udal Planaren aldaketa puntuala onetsi zen behin betiko, birzaitze eta urbanizazio proiektuak onetsi ziren eta urbanizazio lanak 2012ko azaroaren 5ean bukatu ziren, eta orain ikusten da indarrean dagoen planeamenduaren eta egindako lanen artean dauden ezberdintasunak, eta

hori dela eta, Udalak eskatu dio sustatzaileari planeamenduzko aldaketa egitea, egin diren lanei egokitzeko.

Hortaz, egiturazko aldaketa honen helburua da UE-20 Exekuzio Unitatea birdefinitzea, urbanizazio lanak egin zirenean aurreikusitako eremua aldatu baizen.

UE-20 Unitate berriak 3.700,64 m<sup>2</sup> ditu, horietatik batzuk aurreko UE-20 Unitatearen barne daude eta beste batzuk Mezkirizko 13 poligonoko 53 lursailaren barnean.

Aldaketa eskatu izanaren arrazoia da obrak egin zirenean sarbidea eta gainontzekoa aldatu behar izan zela lur gutxiago mugitu eta hobeki gelditzeko.

Exekuzio Unitatean bi lur-zati eraikigarriak egitea aurreikusi da, bata 1.614,92 m<sup>2</sup>koa eta bestea 1.458,54 m<sup>2</sup>, eta bakoitzean etxebizitza bakarra egitea; sarbidea ere zehazten da eta aparkatzeko 6 plaza egiteko 62,50 m<sup>2</sup> aurreikusi da eta ekipamendutarako erabilerarako, lurzatiaren gainontzeko azalera bidea eta espaloia egiteko erabiliko da (284,19 m<sup>2</sup> eta 204,74 m<sup>2</sup>).

Udal arkitektuaren txostenaren arabera, honako kontsiderazioak egin dira:

Proposatu den aldaketak honakoa dakar:

- lurzoria urbanizaezina izatetik hiri lurzoru ez finkatua izatera aldatzea, 1.297,93 m<sup>2</sup>
- lurzoria hiri lurzoru ez finkatua izatetik urbanizaezina izatera aldatzea, 652,95 m<sup>2</sup>
- UE20 Exekuzio Unitatea birdefinitzea, 3.700,64 m<sup>2</sup>

Antolakuntza berrian bi lursail eraikigarri proposatzen da, bata 1.614,92 m<sup>2</sup>koa eta bestea 1.458,54 m<sup>2</sup>koa eta bidea, aparkalekua eta ekipamendutarako 627,18 m<sup>2</sup>. Etxebizitzako azalera igotzea proposatu da: 225 m<sup>2</sup> eta etxebizitzako gehieneko eraikigarritasuna 400 m<sup>2</sup> izatea.

Udal Planak ezarri du Exekuzio Unitate gehienetarako 0,25 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup> gehieneko okupazioa. Unitate honetarako proposatu den okupazioa lurzati batean 13,93 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>koa da eta bestean 15,42 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>. Gehieneko eraikigarritasunari dagokionez lurzati bakoitzeko 400 m<sup>2</sup> da, horrek 0,2476 eta 0,2742 suposatzen du, hurrenez hurren, exekuzio unitateetan sarturik ez dagoen zolarentzako planean proposatu duten 0,60 baino askoz ere gutxiago da.

Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 49.2.a) artikulua arabera zolaren sailkapen eta kategoriaren ezarpena egiturazko zehaztapena da, eta, hortaz, hirigintza eta etxebizitza alorrean premia neurrien ezarpena arautzen duen Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 79, 70 eta 71 artikuluetan eta 6/2009 Foru Legean aipatutako prozedurari jarraituko zaio.

Birzaketari dagokionez, UE20 Exekuzio Unitateko birzaketari Udal onetsi zuen behin betiko, beraz, Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 152. artikularen arabera onarpen horrek hainbat ondorio ditu. Unitate berriaren birzaketari proiektua prestatzean egoera hau hartu beharko da kontuan.

Horiek horrela, aho batez erabaki da, Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 79, 70 eta 71 artikuluek diotenarekin bat etorritik:

1.- José Ángel Castellot García UE20 Exekuzio Unitatean sustatu duen Erroibarko Udal Planaren aldaketa puntuala, hasiera batean ONARTZEA; hori guztia Jose Ignacio Mena Murrek prestatu duen dokumentuaren arabera, 2013ko urrian egin, eta hilabeteko epean jendaurrean jartzea.

2.- Espedientea Sustapen Departamentura IGORTZEA, gaiarekin zerikusia duten hirigintza txostenak erantsiz, departamentu horrek txosten osotua eman dezan.

#### **4.2.- Jesus Urrutia Huartek Zilbetiko 1 poligonoko 21 lurzatian sustatu duen aldaketa puntual xehakatuaren hasierako onespina.**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du aldaketa horren helburua dela Zilbetiko 1 poligonoko 21 C lurzatian egin nahi den etxebizitzaren gehieneko lerrokadurak birdefinitzea.

Proposamenaren bidez karrikarekin muga egiten duen lursailaren zatian gehieneko lerrokadura aldatu nahi da (lursailaren hego eta ekialdea), etxebizitza karrikara hurbildu eta hondeaketa-lanen kostua jaisteko, lursailaren barneko aldean malda baitago.

Proposatuta da lursailaren mugarekiko gehieneko lerrokadura ezartzea metro 1eko tartea utziz, beti ere teilatua lursailaren barne gelditzeko.

Udal arkitektuak egin duen txostenaren arabera.

a) Proposamenak bat egiten du 2003tik indarrean dagoen Udal Planarekin, eta baita 2013ko maiatzaren 20an onetsitako aldaketa puntualarekin, lurzorua hiri lurzoru ez finkatu moduan mantenduz, eta haren erabilera egoitzazkoa eta nekazaritza-abeltzaintzako jardura baimenduz. Ezarrita dauden gehieneko eraikigarritasun baldintzak ere ez ditu aldatzen, hots, etxebizitza bakarreko 270 m<sup>2</sup> eraikiak eta gehienez ere 112 m<sup>2</sup> okupazioa. Proposamenak gehieneko lerrokadurei buruzko zehaztapen xehakatuak aldatu nahi ditu, egingo den eraikinaren gehieneko lerrokadurei dagokienez.

b) Dokumentuak 2.2.2. artikulua, Baldintzak, morfologia eta eraikinen erabilera, aldatzea proposatzen du, urbanizazio proiektua idazteko betebeharrari dagokionez, eta proposatzen du proiektu hori ez izatea ezinbestekoa eta urbanizazioa osatzeko lanak eraikin berriaren proiektuan sartu ahal izatea.

c) Proposatu den aldaketa justifikatu ahal da indarrean dagoen planeamenduak izan zezakeen ondorio ekonomikoengatik, eta, aldi berean, lursailak muga egiten duenez karrikarekin, eraikina karrikara hurbiltzeko konponbidea faboragarria izan daiteke.

d) Dokumentuak barne ditu indarrean dauden lerrokaduren eta proposatzen dituen lerrokaduren planoak, aurreikusitako sestrak barne.

Informea ikusirik, aho batez erabaki da, Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 79. artikuluekin eta 74. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorriz:

1.- Zilbetiko 1 poligonoko 21 lursailean Udal Planak ezarritako zehaztapan xehakatu den aldaketa puntuala hasiera batean onartzea, Iñigo Araizek egindako eta 2013ko urrian aurkeztutako dokumentuaren arabera eta jendaurrean paratzea hilabeteko epean.

2.- Aldaketa behin betiko onartzea alegaziorik egon ezean.

3.- Dokumentua behar bezala bideratua eta informe honekin batera Nafarroako Gobernuako Sustapen Departamentura igortzea.

#### **4.3.- Erroibarko Udalaren eta Javier Juanarena Saraguetaren arteko hirigintza hitzarmena**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du, Udalak Aurizberriko UE-4 Exekuzio Unitatean (9 poligonoko 10 lursaila) Javier Juanarena Saraguetak sustau duen birzatatitzeko proiektua onetsi zuela 2013ko apirilaren 5ean, eta 2013ko apirilaren 12ko 69. zkia duen NAO n argitaratu zela, eta orain, Exekuzio Unitatearen ezaugarriak kontuan hartuz, aprobetxamenduaren %10 uztearen orde z dirutan ordainduko duela, eta hori 25 eta 26 artikuluetara egokituko den hirigintzako kudeaketa hitzarmena publiko batean jaso behar dela, balorazio ekonomikoa barne, eta proiektua behin betiko onartu baino lehen onetsiko den zenbatekoak ordaindua egon behar duela.

Ondoren, aho batez erabaki da:

1.- 35/2002 Foru Legearen 25. artikuluari jarraikiz, hitzarmena sinatzea, uzкета hori gauzatu eta zehazteko, ondoren aipatzen diren baldintzen arabera:

Lehenengoa.- Hirigintza aprobetxamenduaren %10 utzi orde z dirutan ordainduko da, eta Erroibarko Udalaren Hirigintza Zerbitzuek egin duten txostenaren arabera, honakoari erantsia eta bi aldeek sinatu dutena, bost mila lauhun eta hirurogeita hamaika euro eta berrogeita bost zentimo hain zuzen ere (5.471,45€).

Zenbateko hori Erroibarko Udalari ordainduko zaio Hitzarmen hau behin betiko onartu eta 15 egun balioduneko epean.

Bigarren.- Hitzarmenak eta Unitatea garatzeak dakarren gastu guztiak, notarioarenak eta erregistrokoak barne, sustatzailearen kargura izango dira.

Hirugarren.- Hitzarmen hau, administrazio izaera dauka, eta

Lurraldearen Antolakuntzako eta Hirigintzako Foru Legean ezarritakoaren arabera bideratuko da eta sortu ahal diren zalantza eta hutsuneei irtenbidea emateko Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuen Foru Legea aplikatuko da.

Laugarren.- Hitzarmena interpretatu, bete edo ebazteko aferak zein hirigintzari dagozkion aferak Iruñeko Epaitegi eta Auzitegieta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren aurrean konponduko dira, eta bi aldeek uko egingo diote egokitzen ahal zaien bestelako edozein fuerori.

2.- NAOean argitaratzea eta jendaurrean jartzea 20 eguneko epean. Hitzarmena onartu eta sustatzaileak dagokion dirua ordaindu ondoren, birzatatze proiektua behin betiko onartuko da.

#### **4.4.- Bizkarreta-Gerendiainen, 7. pol., 53. lurtzatian, Martingaztereneko aurri-egoeraren txostena**

Ondoren, alkateak, Garralda jk., Bizkarreta-Gerendiaingo 7 poligonoko 53 lurtzatian dagoen Martingaztereneko aurri-egoerari buruz Udalaren arkitektuak, Ana Larequik (Nasuvinsa) egin duen txostena irakurri du; txosten hori Udalak eskatu dio, kontuan hartuz baita hainbat bizilagunek aurkeztu dituzten kexak ere.

Informearen helburua da etxe baten aurri-egoerari buruzko aitortza egitea arriskutsua baita eta urgentziazkoa delako; etxe hori Bizkarreta-Gerendiaingo Done Petri karrika, 11n dago (7 pol., 53. lurtz.). Txostena egin da bizilagun batzuk kexak aurkeztu dituztelako, etxearen egoerak arriskutsua izan daitekeelako pertsonentzako eta Udala kezkatua baitago jabeek ez dutelako ezer egin.

#### **ANTECEDENTES:**

Debido el deficiente estado de conservación del edificio de uso vivienda situado en C/ San Pedro 11 de Bizkarreta-Gerendiain, en mayo de 2010 el Ayuntamiento ordenó al propietario la ejecución de determinadas obras de apuntalamiento exterior e interior de la pared del costado oeste de la vivienda debido al riesgo de desplome existente, así como el vallado del perímetro de la parcela para evitar el acceso al edificio.

En septiembre del mismo año el propietario solicitó licencia de obras para el derribo del edificio aportando proyecto redactado por Javier García Barberena y visado con fecha 11 de agosto de 2010.

Con fecha 14 de septiembre de 2010 teniendo en consideración que el edificio se encuentra catalogado según el Plan Municipal en régimen de protección ambiental fue emitido informe en el que se requería justificación de las razones técnicas o económicas que recomendaban el derribo y justificación del art. 65 de la normativa urbanística general del Plan Municipal, aportando compromiso de reedificación, recuperación o acondicionamiento del solar.

Dando por admisible la respuesta al requerimiento fue emitido informe favorable a la concesión de la licencia para el derribo.

Solicitada una reunión por parte de los propietarios con el Ayuntamiento se convino proceder a realizar las obras necesarias para evitar riesgos sin llegar a derribar el edificio.

A raíz de las fuertes nevadas que se produjeron durante el invierno de 2012-2013, el estado del edificio empeoró considerablemente ya que parte de la cubierta se derrumbó, cayendo la misma hacia el interior del edificio, y parte de las tejas y del alero hacia el exterior. Ante esta situación con fecha 15 de febrero de 2013 el propietario vuelve a solicitar licencia de obras para derribo de edificio en base al proyecto presentado con fecha 8 de septiembre de 2010 que no fue ejecutado en su momento.

Con fecha 19 de febrero de 2013 fue emitido informe favorable para la concesión de la licencia de derribo parcial, (ya que se proponía mantener el muro perimetral hasta una altura de 1,30 m.) con el compromiso de reedificación o acondicionamiento del solar.

Sin ser iniciadas las obras tras mantener nueva reunión entre el Ayuntamiento y la propiedad se propone a esta que en un determinado plazo deben realizar una propuesta concreta bien de derribo en base a la licencia concedida, o bien de consolidación, estableciéndose unos plazos para cualquiera de las dos opciones.

Con fecha 22 de mayo de 2013, a pesar de haber tramitado la solicitud de licencia de derribo la propiedad reconsidera la posible intervención y solicita licencia para proceder a la consolidación del edificio, planteando las siguientes obras:

- Retirada de los elementos de la cubierta deteriorados
- Demolición del tramo de muro de la fachada oeste que se encuentra en mal estado, previo apuntalamiento de las partes que apoyan en el mismo
- Consolidación de la cimentación de esta parte de muro y reconstrucción a base de dos hojas de muro de bloque de hormigón enfoscado hacia el exterior.
- Reposición de apoyos de forjado
- Reconstrucción de cubierta, incluyendo capa de impermeabilización, y nuevo canalón en el faldón oeste.

Con fecha 31 de mayo de 2013 fue emitido informe favorable a las obras de consolidación a la vista del documento presentado y dada la urgencia de las obras se proponía condicionar la concesión de la licencia a que las obras fueran iniciadas en un plazo máximo de dos meses a partir de la fecha de concesión de la licencia y finalizadas en un plazo inferior a tres meses desde dicha fecha.

En el tiempo transcurrido el promotor no ha iniciado ni las obras de derribo ni las de consolidación, por lo que el Ayuntamiento proponiendo iniciar el

expediente de declaración de ruina del edificio, solicita de los servicios urbanísticos informe sobre el estado ruinoso del edificio.

#### NORMATIVA DE INTERÉS

- La Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo en su Título V, Sección 2ª se refiere a las órdenes de ejecución y declaración de ruina.
- El Reglamento de Disciplina Urbanística (R.D. 2187/1978) en relación con el estado ruinoso de los edificios establece el procedimiento para su tramitación.
- Planeamiento municipal. Vigente desde 30 de abril de 2003

#### SITUACIÓN FÍSICA Y CONSTRUCTIVA DEL EDIFICIO.

El edificio se encuentra situado en la parcela catastral 53 del polígono 7 de Bizkarreta-Gerendiain, de 305,15 m<sup>2</sup> de superficie, siendo la única edificación existente en la misma.

El inmueble fue construido en el año 1856 y no se han realizado en él reformas significativas.

Se trata de un edificio de planta baja y dos alturas, que ocupa una superficie de 134,39 m<sup>2</sup> según catastro. Linda al norte con la vía pública, al oeste con belena de aproximadamente 40 cm. que lo separa de la edificación contigua. Al sur y al norte las fachadas abren a la propia parcela.

El sistema constructivo del edificio está resuelto mediante muros de carga de mampostería, pilares de piedra y resto de estructura de madera. La cubierta se compone de correas, cabios, perrotos y enlatado de madera con teja árabe.

En la actualidad el edificio se encuentra en muy mal estado de conservación debido a una falta de mantenimiento a lo largo sobre todo de los últimos años. Exteriormente se puede apreciar que los aleros están en muy mal estado y se han producido diferentes desprendimientos de tejas y elementos en varias zonas. En la fachada sur se puede apreciar que se ha caído toda la balconada del primer piso, quedando actualmente solo en muy mal estado las vigas que lo sustentaban.

La cubierta presenta un gran agujero en el faldón oeste debido a un derrumbe ocasionado el invierno entre 2012 y 2013. Este nos indica también la precaria situación en la que se encuentra la cubierta. Desde el momento del derrumbe no se han tomado medidas para la protección de las inclemencias del tiempo.

En la fachada oeste en la parte central de la belena, se aprecia un pandeo en el muro, que si bien se ha intentado que no vaya a más con un apeo del mismo, las vigas metálicas no llegan a tirar de toda la "tripa" del muro, solamente lo hacen de la parte central.

En el interior, las filtraciones de agua de la cubierta y los huecos exteriores son continuas, sobre todo desde el hundimiento de parte de la cubierta, por lo cual la estructura de madera del edificio se va deteriorando progresivamente.



En la actualidad el Ayuntamiento del Valle de Erro cuenta con Plan Municipal vigente desde el 30 de abril de 2003.

El edificio objeto del informe se encuentra dentro del casco urbano, situado en suelo urbano consolidado de uso residencial, incluido en el catalogo de edificios de interés del Valle de Erro, con un régimen de **protección ambiental**, de estilo popular, uso residencial, grado de conservación 4 deficiente grave, interés arquitectónico-7, histórico-6 y funcional-1 según la ficha particular.

Según el régimen de protección para los edificios así catalogados las obras que se realicen deben tener por objeto la adecuación a los usos actuales sin pérdida de los valores ambientales y tipológicos que poseen, por otro lado la ficha particular del edificio propone la restauración como actuación recomendada.

El art. 65 de la normativa urbanística general analiza distintos tipos de obras a realizar en edificios catalogados con algún tipo de protección entre los que se incluye la demolición, siempre encaminada a la recuperación del edificio, señalando que la concesión de la licencia vendrá siempre precedida de la formalización del compromiso de reedificación, recuperación o acondicionamiento del solar, ya que la demolición puede producir un impacto negativo en los valores ambientales.

## CONSIDERACIONES

Tras la visita de inspección realizada, a la vista de la situación actual del edificio, su situación urbanística y teniendo en cuenta el recorrido del expediente se realizan las siguientes consideraciones:

**A)** El Plan Municipal recomienda para el edificio su mantenimiento, aunque permite su derribo justificadamente siempre que se reedifique o acondicione el solar.

El promotor ya presentó proyecto de derribo y obtuvo la correspondiente licencia de obras, debiendo justificar el estado ruinoso del edificio a requerimiento del Ayuntamiento, como condición al tratarse de un edificio incluido en el catálogo del Plan Municipal, sin embargo no se han llevado a cabo por parte del promotor ni el derribo del edificio ni la consolidación del mismo, existiendo riesgo de que puedan producirse nuevos desplomes en la cubierta que puedan afectar al espacio público o a colindantes. Es por todo esto que se considera recomendable el derribo del edificio con el fin de evitar mayores riesgos.

**B)** Las obras necesarias para que el edificio pudiera mantenerse implicarían como mínimo:

- Derribo completo de la cubierta
- Derribo completo del forjado de techo de planta primera
- Derribo de muro de la fachada oeste que da a la belena

Las obras de derribo señaladas y las necesarias de ejecutar para alcanzar las condiciones exigibles de seguridad, funcionalidad, salubridad, ornato público y habitabilidad no pueden considerarse como de mera reparación, sino de

reconstrucción y superan ampliamente el 50% del coste real del actual del edificio.

### **C) Supuestos legales de ruina**

De los datos anteriores se deduce que la edificación existente se encuentra en **estado de ruina**, técnica y económica, conforme a lo previsto en los apartados a) y b) del art. 196 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo:

- El coste de las obras necesarias para su rehabilitación es superior al 50% del valor actual del edificio o plantas afectadas, excluido el valor del terreno.

- El edificio presenta un agotamiento generalizado de sus elementos estructurales o fundamentales.

**Azaldutakoa kontuan hartuz** eta aipatutako guztiaren aurrean, hots, lurzatiaren hirigintza-egoera, jabeek ez dutela ezer egin, epeak ez dituztela bete eta hirigintza zerbitzuak egindako txostena, eta kontuan hartuz eraikinaren egoera Lurraldearen Antolakuntzako eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 196. artikulua aipatzen dituen suposturen batekin bat egin ahal duela, AHO BATEZ ERABAKI DA:

1º.- **Eraikinaren aurri-egoera deklaratzeko eta botatzeko agindua ematea**, aldeztatik ukituak izango direnei entzuteko aukera emanez, eta jabeak ez badu Udalak onartutakoa betetzen, Udalak erabakia bete beharko duela jabearen kargura.

2.- Bizkarreta-Gerendiaingo 7 poligonoko 53 lursaileko Martingazterenerako jabeek hartutako erabakia jakinaraztea eta hamabost eguneko epea ematea alegazioak egin eta egokiak deritzoten dokumentu zein agiri aurkezteko.

3.- Mugakide diren lursailen jabeek hartutako erabakia jakinaraztea eta hamabost eguneko epea ematea alegazioak egin eta egokiak deritzoten dokumentu zein agiri aurkezteko.

## **5.- BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAK, NAFARROAKO GOBERNUAK ETA NAFARROAKO UDALERRI ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAK ETXEBIZITZA FAMILIARRETIK BOTATZEA DELA-ETA LARRITASUN-EGOERAK HAUTEMAN ETA IZAERA SOZIALEKO NEURRIAK HARTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI ATXEKITZEKO ESKAERA.**

Alkateak, Garralda jk. hitza hartu du eta jakinarazi du NUKFak hitzarmena sinatu zuela Botere Judizialaren Kontseilua Nagusiarekin eta Nafarroako Gobernuarekin, etxebizitza familiarretik botatzeko dela-eta larritasun-egoerak hauteman eta izaera sozialeko neurriak hartzeko.

Hitzarmenak ezartzen du hitzarmenarekin bat egiten duten toki entitateetako gizarte zerbitzuei eskatu ahalko zaiela ukitutako pertsonen ahultasun egoera baloratzeko, eta, beharrezkoa balitz, neurri egokiak hartzea.

Ekimen horretan parte hartzeko, Udalak erabakia hartu behar du, eta gure

kasuan, gizarte zerbitzuetako mankomunitate batean gaudenez, gaia jakinaraztea. Modu berean, erabakia Federazioari jakinarazi behar zaio, Nafarroako Epaitegiei eta Lehendakaritza Departamentuari jakin arazteko.

Ernaga jk. hitza hartu du eta esan du uste duela egoera horretan dauden pertsonak defendatu behar ditugula etxegabetzeak gauzatu ez daitezten eta horrelako egoeran daudenei konponbidea bilatzeko beharrezko baliabide guztiak erabiliz. Modu berean dio ez dagoela ados mota horretako laguntzarekin, ez baita ez nahikoa ezta egokia ere, ez baitio arazoaren oinarriari heltzen.

Bozketa egin da eta erabaki da aldeko sei botoz (Martinez, Echamendi, Urtasun, Juanarena, Villanueva eta Garralda) eta aurkako batez (Ernaga):

1º.- 1.- Bat egitea Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak etxebizitza familiarretik botatzea dela-eta larritasun-egoerak hauteman eta izaera sozialeko neurriak hartzeko lankidetzak-hitzarmenarekin, hartan agertzen diren klausula eta baldintza guztiak onartuz.

2.- Alkateari, Garralda j., ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko eta erabakiaren berri Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari bidaltzea.

## **6º.- 6.- ESTATUKO TRAFIKOKO BURUZAGITZAREN ETA NUKFren ARTEKO HITZARMENAREKIN BAT EGITEA**

Alkateak, Garralda jk. hitza hartu du eta jakinarazi du hitzarmena sinatu duela estatuko Trafikoko Buruzagitzaren eta Espainiako Udal eta Probintzien federazioaren artean informazioa trukatu eta elkarlan administratiboa egiteko. Hitzarmen horren bidez bizilagunek eskatu ahalko dute bai gidatzeko baimena zein zirkulazio baimenaren helbidearen aldaketa Probintziako Trafikoko Buruzagitzaren bulegoetara joan gabe. Udalak bidaliko du, noizean behin, Probintziako Trafikoko Buruzagitzara, posta elektronikoz, bizilagunek eskatutako altak eta helbide aldaketak, bulego horietan aldaketa horiek egin ditzaten. Horrekin lortuko da bizilagunei zerbitzua ematea eta, aldi berean, udalerrian erroldatutako guztiek ibilgailuen gaineko zerga ordaintzea.

Aho batez erabaki da:

1.- Trafiko Zuzendaritza Zentrala Erakunde Autonomoaren eta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioaren arteko lankidetzak hitzarmenari atxikitzea eskatzea, informazioa trukatu eta elkarlan administratiboa egiteko.

2.- Eskatera Trafikoko Buruzagitzara igortzea, beharrezko tramiteak egin ondoren, Hitzarmenari atxikitzeko Protokoloa alkateak eta Nafarroako Trafikoko Buruzagitzak sina dezaten, Udalaren datuak jakinaraziz TZNko web gunean sartu eta bizilagun guztiek jakin dezaten.

## **7.- AURIZBERRIKO "URROBI INDUSTRIALDEKO" UDALEZ GAINDIKO PLAN SEKTORIALAREN ALDAKETAREN DOKUMENTUAREN ONESPENA**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta Aurizberriko Urrobi Industrialdeko udalaz gaineko Plan Sektorialaren aldaketaren gainean Loperena-Portillo Arquitectos S.L. enpresak prestatu duen dokumentua aurkeztu du, oniritzia eman eta Nafarroako Gobernura igortzeko; horren inguruan bilera informagarriak egin dira giza-agenteeekin.

Martinez ak. hitza hartu du eta galdetu du Aurizberrin ezarri nahi duten enprekin dagoen hitzarmena indarrean jarraitzen duen. Ernaga jk. galdetu du zenbat enpresa jarraitzen duen industrialdean ezartzeko prest eta eskaerarik dagoen eta, izatekotan, eskaera horien kopiak eskatu ditu.

Alkateak, Garralda jk., erantzun du alde batetik Udalak ez duela hitzarmenik sinatu eskaera egin duten enprekin, Aurizberriko Kontzejuak baizik, eta bestetik, badaudela Urrobi industrialdean ezarri nahi duten enpresen eskaera formala eta eskaera horiek indarrean daudela. Azkenik aipatu du industrialdea urbanizatu aurretik proiektu hori egiteko bermeak eskatuko zaiela.

Ernaga jk. galdetu du industrialdean ezarri nahi duten enpresa handiek ezetz errango balute, ea aukerarik dagoen enpresa txikiagoak ezartzeko. Alkateak, Garralda jk., erantzun du UGPSren aldaketaren bidez bai udal planean zein UGPSean ezarritako baldintzak betetzen dituzten edozein motatako enpresari ateak zabaltzen zaizkiola, berin handiak zein txikiak izan, eta urbanizazio lanak egitea kostu handiz denez, bideragarria izango dela ezarri nahi duten enpresek urbanizazio horren kostuari aurre egin ahal badiote.

Martinez ak. hitza hartu du eta esan du kezkatua dagoela alde batetik urbanizazioaren kostuarengatik eta bideragarritasunarengatik, badakielako beste industrialde batzuetan ezin izan dela kostu hori mantendu, eta, bestetik, ezartzeko interesa adierazi duten enpresak interesaturik egoten jarraituko duten ala ez.

Eztabaidaren ondoren, bozketa egin da eta erabaki da aho batez:

1º.- Aurizberriko "Urrobi industrialdeko" udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketaren dokumentua onartzea.

2.- Nafarroako Gobernura igortzea, bideratu eta onets dezan, Lurraldearen Antolakuntzako 35/2002 Foru Legearen 45. artikulua arabera.

## **8.- BIZKARRETEKO ZOLAKETA LANEN ADJUDIKAZIOAREN PROPOSAMENA**

Idazkariak hitza hartu du eta jakinarazi du Bizkarreta-Gerendiango Done Jakue Bideko zatia eta haren ingurua zolatzeko lanak adjudikatzeko lehiaketa Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu dela eta zazpi eskaintza aurkeztu direla: ELCARTE, IC, ARIAN, OBENASA, MARIEZCURRENA, .SASOI eta GUILLEN. Eskaintzak ireki eta teknikariek, baldintza pleguaren arabera, balorazioa egin ondoren, Osoko bilkurari, kontratazio organoa den heinean, proposamena aurkeztu zaio, hots, Bizkarreta-Gerendiango Done Jakue Bideko zatia eta haren ingurua zolatzeko lanak CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA enpresari adjudikatzea, baldintza guztiak betetzeaz gain hobekien baloratu den eskaintza izan baita.

Udalbatzak ERABAKI DU aho batez:

Bizkarreta-Gerendiaingo Done Jakue Bideko zatia eta haren ingurua zolatzeko lanak CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA enpresari adjudikatzea 493.107,35 eurotan BEZ (%21); enpresa horrek helbidea Iruñean (Nafarroa) dauka, Orreaga etorbidea 6-1.ean, pk 31002 eta IFZ B31083199.

### 9.- 9.- AURREKONTUKO ALDAKETEN ONESPENA

Alkateak, Garralda jk., jakinarazi du alde batetik ez dagoela aurrekontuan partida nahikorik Udalak Lastur mendiko aprobetxamenduarengatik Bizkarreta eta Lintzoaingo kontzejuei ordaintzeko, eta bestetik, Sorogaingo aterpea egokitu eta mantentzeko, eta, hortaz, aurrekontuan aldaketak onartu behar dira Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legearen 212 artikuluan eta ondorengoetan dioenari jarraiki.

#### AURREKONTUKO ALDAKETAK

##### 1. alkaketa

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 951 46602	KONTZEJUENTZAKO DERRAMA LASTURREKO OIHAN APROBETXAMENDUA	6.197,76

<b>ALDAKETAK OSOTARA</b>		<b>6.197,76</b>
--------------------------	--	-----------------

#### FINANTZIAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 870	Gastu Orokorretarako diruzaintzako soberakina	6.197,76

<b>FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA</b>		<b>6.197,76</b>
--------------------------------------	--	-----------------

<b>Diruzaintzako Geldikinaren kargura.</b>		<b>6.197,76</b>
--	--	-----------------

##### 2. aldaketa

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 751 2260501	SOROGAINGO ETXEKO EGOKITZE ETA MAN.	7.000,00

<b>ALDAKETAK OSOTARA</b>		<b>7.000,00</b>
--------------------------	--	-----------------

#### FINANTZIAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 870	Gastu Orokorretarako diruzaintzako soberakina	7.000,00

<b>FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA</b>	<b>7.000,00</b>
--------------------------------------	-----------------

<b>Diruzaintzako Geldikinaren kargura.</b>	<b>7.000,00</b>
--	-----------------

Azkeneko aldaketari dagokionez, Sorogaingo etxean alokairua zeukan aurrekoarekin zein oraingoarekin egin diren lanei dagozkien faktura eta gastuen gaineko informazioa eman zaio udalbatzari.

Aho batez erabaki da aipatutako aurrekontu aldaketak onartzea eta 6/1990 Foru Legearen 276 artikulua dioenaren arabera jendaurrean jarriko da 15 lan eguneko epean udal idazkaritzan.

## **10.- DENETARIK**

- Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du 2012/2013ko oihanetako jarduketa planari buruz, Measkoitz, Txangoa eta Aztakarriko bideak hobetzeko lanak Mendi Lan enpresari adjudikatu zaizkiola, ezarritako baldintzak betetzen dituelako aurkeztu duen proposamenak eta zenbatekoa 27.902,12 €, BEZ barne dela.

- Alkateak, Garralda jk., jakinarazi du aurreko bilkuran adostu bezala, Erro ibaia garbitu dela eta horretarako makina bat kontratatu dela.

- Modu berean jakinarazi du Lurraldearen Antolakuntzako Zerbitzuak Patxaran Biskarret enpresak sustatu duen planaren egiturazko aldaketaren behin betiko onespena igorri duela.

Ondoren, alkateak, Garralda jk., alde egin behar duenez, haren lekua alkate ordeak hartu du, Juanarena jk.

- Urtasun ak. hitza hartu du eta jakinarazi du Aurizko Osasun Etxean Gizarte Langilea jarriko dutela, Agoizko Osasun Etxearekin partekatua, astean behin etorriko dela eta, dagoen lan bolumenaren arabera, denbora gehiago behar duen baloratuko dutela.

Modu berean jakinarazi du 34 haur eskoletarako dirulaguntzak onartu direla eta horien artean eskualdekoa dagoela eta 23.000 euroko dirulaguntza jasoko dela mantentze eta kudeaketa gastuetarako.

- Urtasun eta Martinez zinegotziek jakinarazi dute NUKFak proposaturik eta Laurentxi elkartearen eta Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearen laguntzaz, genero indarkeriaren aurka ibarrean antolatu zen ekitaldian Udalak parte hartu zuela eta alkateak berak manifestua irakurri zuela. Kontzejuei ere gonbidapena igorri zitzaion eta ibar osotik zabaldu zen eta bizilagun askok oso ongi baloratu dute.

## **11.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

- Ernaga jk. hitza hartu du eta galdetu du zergatik ireki diren zangak Erroko karriketan. Echamendi jk. erantzun dio ez duela zerikusirik egindako lanekin, alde batetik Zereroen etxearen ondoan ur-biltegira doan tutuerian matxura

izan dela eta, bestetik Rafael etxearen ondoan, lekurik baxuenetakoa denez, presio handia sortu da eta matxurak izaten dira.

- Ernaga jk. galdetu du zer gertatzen den Amma Ibañeta Zaharretxeko zerbitzuarekin eta bertako langileekin, horrek funtzionamenduan eragina izaten ari baita eta, azken finean, bertan dauden zaharren zaintzan. Aztertu beharko litzateke Udalek esku hartu ahal duten eta dauden arazoak konpontzen lagundu, eta Udalen eta Nafarroako Kutzaren artean 1994an hartutako erabakien espediente eskatu du, ondoren hori guztia Amma Ibañetari eman zitzaiolako.

Urtasun ak. hitza hartu du eta jakinarazi du zahar etxean zeuden adinekoen kopurua jaitsi egin zela eta langile bat kendu zutela, lana gainontzeko langileen artean banatuz, baina orain 32tik 37ra igo dela kopurua baina ez langileena eta ezin dutela bere lana behar bezala egin.

Amma taldearekin bilera egitea proposatu da.

- Ernaga jk. hitza hartu du eta esan du elurra herrietako karriketarik garbitzeko zerbitzua kontratatzea eskatu zuela aurreko bilkuran eta oraindik ez dela erabakirik hartu. Joan den urteko ekainean lanean aritu zirenen kostuen informazioa eskatu zuela balorazioa egiteko eta ez zitzaiola dokumentazio guztia aurkeztu. Echamendi jk. erantzun du bere aldetik egin behar zituen lan-partea eta beste norbaitenak falta zirelako.

Urtea bukatu aurretik batzordea deitzea erabaki da gaia konpondu eta zerbitzua adjudikatzeko.

Martinez ak. dio joan den urtean eman zen zerbitzuak oso ongi funtzionatu zuela.

- Azkenik, Ernaga jk. dio Tokiko Mapari dagokionez bilera eskatu zela NUKFari, tokiko entitateen partaidetza handiagoa izan zedin, eta hemen horren aurkako iritzia eman zela baina bilera hori egin zenean Udala joan zela eta jakin nahi du botoa Udalaren izenean eman zen edo baita Kontzejuen izenean ere. Urtasun ak. dio batzar horretara bera joan zela baina bakarrik Udalaren izenean bozkatu zuela, Kontzejuetako ordezkariak ere joan zirela eta beraiek eman zutela botoa.

- Martinez ak, dio bidexken proiektuari dagokionez hobeki seinaleztatu behar dela Done Jakue Bidea, bizpairu kartel informagarri jarriz eta horrek ez duela kostu handirik. Ernaga jk. hitza hartu du eta aipatu du uste duela bide hori badagoela ongi seinaleztatua.

Dena den Ekilan enpresak egin duen proiektua, Cederna-Garalurreko Edurnek aurkeztua, aho batez onartu da.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 19:15ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.